



TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO

# hitza



Ostirala  
2010-07-09

VIII. URTEA 2.047. ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

## Udalak «gaizki pasatzen ari direnei laguntzeko» 57 lanpostu sortu ditu

**TOLOSA** Gaurtik eman daiteke izena lanpostu hauek eskuratzeko Tolosaldea Garatzeneko Lanbide zerbitzuan

**POSTUAK** 30 peoi lanak dira, 15 erdi teknikarienak, 7 administratzailearenak eta 5 goi mailako tituludunentzat



Jokin Bildarratz Tolosako alkatea eta Gemma Zabaleta Enplegu eta Gizarte Gaietarako Sailburua. I. TERRADILLOS



Atzo iritsi ziren lehen haur sahararrak eskualdera. E. MAIZ

## Aurten inoiz baino haur saharar gehiago iritsiko dira eskualdera

**GIZARTEA** 19 etorriko dira guztira; atzo iritsi ziren lehenak eta gainontzekoak bihar ailegatuko dira



saridunak



Lagun Onak-en eskutik  
**MACACOren kontzertua**  
'mensajes del agua'  
Azpeltiko Garmendipe  
Futbol Zelaia  
uztailak 10, larunbata/22:00

**Marian Zestau Baraibar (Leitza)**

Sarrerak, HITZAko bulegoan jaso

bazterdunak  
**TXOKOA hitza**



# EHNE haserre Diputazioaren murrizketekin

**Nekazaritza** » Sindikatuak azalpenak eskatu dizkio Landa Ingurunearen Garapenerako foru diputatuari.

## OIHANA IGURAN

Gipuzkoako Foru Aldundiak «murrizketa ikaragarriak» plazaratu ditu 2010eko laguntza planetan. Gainera, nekazaritzara bideratutako dirua inoiz baino txikiagoa izango da, aurrekontuetan jasotakoa baino txikiagoa.

EHNEk uste du gauzak beste modu batera egin daitezkeela, eta aurrerantzean baserriarren parte-hartzea sustatzeko mekanismoak martxan jar ditzan eskatu dio Aldundiari.

Sindikatuaren arabera, enplegua eta garapen ekonomikoak dakartzaten jarduerak sustatu beharrean, «sektorearen ekonomian apenas eraginik ez duten jardueretara» bideratu dute diru gehiena. «Ardurarik gabe» jokatu du Aldundiak, eta EHNEk hori ez du



EHNEK nekazaritzarako dirua inoiz baino txikiagoa izango dela dio, HITZA

ulertzen. Horrexegatik galdera sorta igorri dio Rafa Uribarren Landa Ingurunearen Garapenerako diputatuari.

«Ardura eza» izan da aurtengo laguntza planak eratzeko ezaugarri nagusia, EHNEren aburuz. Izan ere, azken urteotan murrizketa handienak izan dituen Saila izanik, «sektorearen garapen ekonomikoa eta lanpostu berriak sustatu beharrean, beste jarduerak ba-

zuetara» bideratu ditu laguntza gehienak EHNEren ustez. «Azpiegiturak eta zerbitzuak indartzen ari dira azken urteotan, eta beharrezkoak dira, baina ezartzen dituzten lehentasunak ez datoz kasu askotan sektorearen beharrek in bat» zehaztu du EHNEk.

**Krisi garaiko lehentasunak** Sindikatuak azaldu duenez «orain, inoiz baino gehiago, nekazari-

lanpostuei eutsi egin behar zaie, baserrian instalatu nahi duten gazteei lagundu, eta nekazaritzan lanpostuak sortu. Batez ere, krisi orokor garai honetan». «Apustu estrategikoa» da EHNEren ustez, «baina Aldundiak orain urte batzuk, krisiaren aurretik, hartu zuen norabideak ez dio sektorearen garapen ekonomikoari laguntzen». Azken batean, jarduerak ekonomikoa sustatzera bideratzen den dirua «huskeria» da: «Sailaren aurrekontu osoaren %1,3 baino ez dute bideratuko aurreko urteko instalatutakoak».

## Sailarekin desadostasunak

EHNEk ez du ulertzen zer gertatzen den Sailean. «Iaz, esaterako, aurrekontua onartu bazen ere, ez zen planik onartu ere egin. Eta hori Europako Batasuneko beste inon ez da gertatu. Aurreko, berriz, aurrekontuetan onartutakoa baino diru gutxiago bideratu dute landa inguruagaratzeko. Harrigarria zera da: 2011ko aurrekontuak konprometitu dituzte iazko eta aurtengo proiektuak diruz laguntzeko. Aurrekontuak eta dekretuak

Eneritz Otamendi orendaindarrak, Gipuzkoako EHNEko lehendakariordeak. Korrespontabilitatea aldarrikatzen du EHNEk, deon artean erabaki beharko bailitzateke dirua zertan erabili euren ustetan. «Gainera, Sailak diru gutxi duela egia bada, hobeto sektorearen iritzia aintzat hartzen badu», dio Otamendik. Aurrera begira, parte-hartzea sustatu dezan eskatzen du sindikatuak.

2009ko urtarrilaren letik aurrerako inbertsioak eta nekazaritzako lehen instalakuntzako proiektuak laguntzeko balio du kaleratutako dekretuak. Oso aurrekontu murriztua da Otamendik azaldu duenez, «inbertsioetarako bideratutako dirua 2008koaren erdira ez delako iristen, eta bi urte hartzen ditu». Jaso daitekeen laguntza 60.000 eurora jaitsi du dekretuak, nahiz praktikan inork ez dezakeen diru kopuru hori jaso.

EHNEK salatu duenez, orain ez dituzte diruz lagunduko hainbat inbertsio mota, hala nola lurrak hobetzea, bigarren eskuko makinaria, lurrak eskuratzeko edota baserriren erreformak; «Aldundiak, ahal izan duen guztietan, laguntzok beste erakunde batzuetara bideratu ditu: EVEra, esaterako, eguzki panelak jartzeko».

Horrez gain, portzentaia lagungarriak murriztu egin dituzte. «2008an inbertsio batek gehienez %49ko laguntza jaso zezakeen; orain, berriz, %40», argitu du.

Dekretuaren arabera, instalatu nahi duten gazteek izango dute lehentasun osoa. Baina aurreko urteetan baino gazte gutxiagok izango dute instalatzeko aukera, diru kopuru txiki delako eta. Inbertsioerkin bat egin beharrean diren baserriar helduek, haatik, ez dute laguntzarik jasoko.

Azken urteotan Landa Ingurunearen Garapenerako Departamentuak hartu duen norabideaz kezkatuta azaldu da EHNE: «kasik luxuzko instalazioak laguntzetik oinarritzeko inbertsioak ez laguntzera pasatu da». «Aldundiak ez ditu Europako Batasunak ematen dituen aukera ekonomiko guztiak behar beste aprobetxatzen, ez du lidergorik ez iniziatibarik, eta ez du sektorearen egoera konpontzeko ezere egiten», dio Otamendik.

**«Baserriarrek laguntza planen diseinuan parte hartu behar dute, enplegua sustatzeko»**

**«2008an inbertsio batek gehienez %49ko laguntza jaso zezakeen; orain berriz, %40»**

**Aurrera begira, parte-hartzea sustatu dezala eskatu dio sindikatuak diputazioari**

zorrotz aztertzen jardun du EHNEk, baina lehen ez bezala, gardentasun eza agerikoa da; ahalegin egingatik, ez da ezer ulertzen», argitu du.

Horiek horrela, gardentasuna exijitu nahi dio EHNEk Aldundiari. «Aldundiak zergatik ez du sektorearen parte-hartzea bermatzeko mekanismoak martxan jartzen laguntza-planak diseinatzen, beste kontu batzuetan ahalegin berezia egiten badu?», galdetu du

**AUKERA HANDIA ETA GUZTIA**

# Kalitatezkoa

**EDARIAK**  
Bilbao, Euzkadi, KOLAZITEN, PAGOIA, SALAZ BIKOR, SANGARI, XEPE

**ELIKAGIAK**  
Euzkadi, Euzkadi, Euzkadi, Euzkadi, Euzkadi, Euzkadi, Euzkadi, Euzkadi, Euzkadi, Euzkadi

**JANTZIAK**  
berria, kot, MEDIO, eruzkariak

**DISKOAK, LIBURUAK, DVDak...**  
berria, ekr, Lanku, Euzkadi

**ESKULANGINTZA**

**400**  
Tresneria

**www.euskalherriko plaza.com**

**SARTU ETA EROSI GUREAN**

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Jokin Bildarratz eta Gemma Zabaleta, erakundeetako ordezkariekin batera, atzoko aurkezpenean. I.T.

## 57 lanpostu berri sortu ditu Udalak «zailtasun handienak dituztenei laguntzeko»

**Ekonomia** » Gaurtik lanpostu hauetarako izena eman daiteke Tolosaldea Garatzenen kokaturiko Lanbide zerbitzuan.

### INIGO TERRADILLOS

Tolosako Udalak 57 lanpostu sortu ditu, bereziki gizarte-bazterketa egoeran dauden edo egoera horretan egoteko arriskua duten pertsonentzat. 6 hilabeteko iraupena duten arlo askotariko lanpostuak izango dira, eta horietakoren batean postu bat lortzeko ezinbesteko baldintza izango da Inem-en edo Euskal Enplegu Zerbitzuan izena emanda egotea eta desenpleguko ordaindutakoaren arabera ko prestazioa ez jasotzea.

57 lanpostu berri hauen sortzea + Euskadi izeneko ekimenaren barruan kokatzen da. Ekimen honekin Eusko Jaurlaritzak 7.000 enplegu berri sortu nahi ditu, «zailtasun handienak dituzten pertsonak lan munduan txertatzeko aukera eskaintzeko helburuz».

**Herriaren egoeraren azterketa** Tolosaren kasuan, Udalak azterketa bat egin du lanpostuak definitu aurretik, «herrian dauden enplegu iturriak detektatzeko».

Horren arabera, izatera askotariko 57 lanpostu sortu ditu. Gehien-

goa peoi postuak izango dira; ondoren, erdi teknikari postuak egongo lirateke; administratzaile lanerako postuak ondoren, eta azkenik, goi mailako titulazioenak.

Lanpostu guztiak 6 hilabeteko iraupena dute, eta lanaldi osokoak dira. Lanpostu hauek ez dute lehendik dagoen lanposturik ordezkatzeko, eta ekimen honekin, «pertsonal eta baliabide faltagatik helduko ez ziren proiektuei ekiteko modua aurkitu da».

Udalaz aparte, Udalarekin zerbitzu kontratua duten enpresa batzuketan ere izango dira kontratatzaile Gureak edota Kirolzer, esaterako. «Udalak, beraz enplegua aktibatzeke agente gisara jardun du, enplegu publikoa eskaintzeaz gain, jendeari enplegu pribaturako bide irekiz».

### «Atzoko lanaren ondorio»

Atzo egin zuten lanpostu berrien aurkezpena, eta Jokin Bildarratz Tolosako alkateak Eusko Jaurlaritzaren babesa eskertu zuen «ekimena posible egiteagatik, esfortzua handia baita». Oinarriko errenta jasotzen dutenei bideratutako izango dira 57 lanpostuetako batzuketak; «Ondorioz, gaizki pasatzen ari direnei lana emateaz gain, oinarriko errenta hori jende gehiagoraino iristeko aukera izango da».

Gemma Zabaleta Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaie-

### » DATUAK

■ **Ekimena.** + Euskadi proiektuaren barruan Tolosan 57 lanpostu sortu dira, gizarte-bazterketa dauden edo egoera horretan egoteko arriskua duten pertsonentzat.

■ **Baldintzak.** Lanpostu hauetakoaren baterako aukera izateko, Inem-en edo Euskal Enplegu Zerbitzuan izena emanda eta desenpleguko ordaindutakoaren arabera ko prestazioa ez jasotzea izango dira baldintzak.

■ **Lanpostuak.** 30 lanpostu (%53) peoi postuak; 15 (%26) erdi teknikariak; 7 (%13) administratzaileak, eta 5 (%8) goi mailako tituladuentzat.

■ **Eskaerak.** Lanbiderekin (Tolosalde Garatzen, 943 65 45 01) jarri beharko da harremanetan.

■ **Aurrekontua.** Proiektua aurrera ateratzeko Eusko Jaurlaritzak 856.635 euro jarri ditu, eta Tolosako Udalak 256.297 euro.

tarako Sailburua ere izan zen aurkezpenean. «Estatuko beste lurraldeekin baino Europarekin alderagarria den egoeran gauden arren, langabezia da gure arazo nagusia» esan zuen. Hala, Euskal Autonomia Erkidegoko langabezia Espainian dagoenaren erdia dela nabarmendu zuen, eta hori lan handia egitearen ondorio dela azpimarratu.



Herenegun txapelketako lehenengo partida jokatu zuten. I.T.

## 10 bikote ariko dira lehian 42. Paleta Txapelketan

**Kirola** » Herenegun hasi ziren partidak Berazubiko pilotalekuan; uztailaren 23an jokatuko dituzte finalak.

### ERREDKZIOA

Urteroko moduan, udan hutsik egin gabe, aurten ere Tolosa CFK Paleta Txapelketa antolatuta du. 42. kote ariko dira lehian Berazubiko frontoian. Hain zuzen ere, herenegun hasi ziren partidekin, eta uztaila osoan zehar jokatuko dituzte.

Hamar bikoteak ligaska sisteman lehiatuko dira uztailaren 19ra arte, bi taldetan banatuta. Talde bakoitzeko bi lehenak finalerdietarako sailatuko dira.

Finalerdiak uztailaren 21ean jokatuko dituzte, eta finalera iristen

diren bikoteek uztailaren 23an jokatuko dute azken lehia.

Egunean bi partida jokatuko dituztenetan 19:00etan hasiko dira, eta hiru direnetan, 18:30ean emango zaiei hasiera. Partidak 30 tantora jokatuko dituzte, eta finalerdietatik aurrera, jokalariek txuriz jokatu beharko dute.

A taldea ondorengo bikoteek osatzen dute: Otermin-Urdanpilleta, Balerdi-Agirre, Yugueros-Urtetz egingo dute aurten, eta 10 bikote ariko dira lehian Berazubiko frontoian. Hain zuzen ere, herenegun hasi ziren partidekin, eta uztaila osoan zehar jokatuko dituzte.

Hamar bikoteak ligaska sisteman lehiatuko dira uztailaren 19ra arte, bi taldetan banatuta. Talde bakoitzeko bi lehenak finalerdietarako sailatuko dira. Finalerdiak uztailaren 21ean jokatuko dituzte, eta finalera iristen

**KM**  
Kulturas

Kaldu Mitxelena Kulturaren  
Urdaneta Kalea 9 • 20006 DONOSTIA  
Tel.: 943 11 28 93  
programazioa@gipuzkoa.net  
www.gipuzkoa.net/kulturas

## ERAKUSKETAK

DON HERBERTI

PAISAJA ILDIA GISA

**ORDUTEGIA**  
asteartetik larunbatera:  
11:00-14:00 / 16:00-20:00  
astetuekin, igande eta jaieranetan bitartean:  
10:00-14:00 / 16:00-20:00  
Tel. 943 112 756 / 943 346 025

**Gidariak** behar dira dokumentazioa eta baliabide banatzeke. Postu finkoak erakunde publikoetan. Lanaldi jarraia.

610-71 97 82

**Lan publikoetarako** zaintzaileak, igeltseroak, arrotzak, argiketariak, eta mantenuerako langileak behar dira. Lanpostu finkoak.

600-97 74 95

**Telefonistak/harreragileak** behar dira eraikin publikoetarako. Postu finkoak. Lanaldi jarraia.

607 -25 42 40





Zizurkilgo Otaño Herri Eskolako kideak. HITZA



Tolosako Hirukideko jaialdia txaranga eta guzti. HITZA

# AMAIERAREN ONDOREN...

**Hezkuntza** » 2009/10 ikasturtea amaitu da ikastetxeetan, horren adierazle, lekuan lekuko jaialdiak izan dira. Orain oporrak dira eta gero...

## ERREDAKZIOA

Hasten den guztia amaitu egiten omen da, baina ikasle eta irakasle-entzatz amaitzen dena berriro hasten da iraila inguruan.

Tartean berriz, askorentzat nahi baino laburragoak diren bi hilabete gelditzen dira, hau da, udako oporrak.

## Areson zuzendari berria

Mikel Illarregi leitzarra izan da Aresoko Eskolako zuzendaria azken urteotan. Lan gogorra egin ostean, beste leitzar batek hartuko du Illarregiren postua, Lierni Sagastibeltzak hain zuzen ere.

2010/11 ikasturteko zuzendaria ez da arrotza Areson, Haur Hez-

kuntzako irakaslea izan baita oraindano.

## Adunan, ikaztegieta eta Asteasun berrikuntzak

Adunako ikasleek, ikasturte berrian, aldaketak nabaritu dituzte eskolan. Ikastetxea handitzeko lanak amaitu dira eta ondorioz, ikasgela gehiagoz gozatzeko aukera edukiko dute irailetik aurrera.

Ikaztegieta, handitze lanak amaitu ordez hasi egingo dituzte ikasturte hasieran. Hala eta guztiz ere, haurrentzatez da eragozpenik

egongo, Erretoretxe azpiko lokal-etan izango baitute eskola. Ikasgela berriak astelehenean prestatu zituzten herritarrek auzolanean.

Asteasun Pello Errota eskolaren eraikin berria itxura hartzen ari da. Uda berriz, eraikin zaharra egokitzeko aprobetxatuko dute. Ondorioz, ikasturte berrian berrikuntza txiki batzuek gozatuko dute.

## Larraulgo haurrak herrian

Guraso Elkarteok eta Udal ordezkariak, ikasturte osoa, bilerak egingez pasa dute. Ez dute inongo

erantzunik jaso eta orain ere Hezkuntza Sailarekin bilerak lotu nahi izan badituzte ere, ez dute erantzun positiborik jaso.

Larraulgo gurasoen asmoa, irailko lehen astean, beraien haurrak Larraulgo eskolan mantentzea izango da. Asteasuko Pello Errota eskolarekin harremanetan jarri ostean, bi urtetik hasi eta zortzi urte bitarteko haurrak herriko eskolan mantenduko dituzte.

Irailan, beraien egoera berdinean dauden beste eskola txiki-kin elkartuko dira.



Villabona-Zizurkilgo Jesusen Bihotza Ikastolakoak dantzan. HITZA



Amezketako eskolako ikasleak mozorroturik, ikasturte amaierako jaialdian. HITZA







Alegiako eskolako en jaialdia. HITZA



Anoetako 'afrikarrak' Herri Ikastolaren jaialdian. HITZA



Samaniegoko ikasle, irakasle eta gurasoak. HITZA



Laskorain ikastolakoak eskutik helduta. HITZA



Aulki jokoan ikasle eta gurasoak, Villabonako Fleming eskolan. HITZA



## Gipuzkoa, bizkor

### Donostiako Bigarren Ingurabidea

Gipuzkoako errepideak gorki behera aldatuko dituen Donostiako sahesbide "berria".

Azken bertsunaldiko 17 kilometroko autobide honi esker, 40.000 ibilgailuk baino gehiagok ez dute Donostiako sahesbidea igaro beharrik izango, berriz ere ibilgailu astunak eta Gipuzkoa zeharkatzen dutenak.

300 milioi euro baino gehiagoko inbertsioa eta trafikoa kudeatzeko teknologia modernoak zure erosotasuna eta segurtasuna handituko.



**GIPUZKOA**  
zurekin, aurrera

# Iritsi dira lehendabiziko haur sahararrak eskualdera

**Gizartea** » Aurten inoiz baino gehiago dira, hemeretzi; batzuk atzo etorri ziren eta bihar ailegatuko dira besteak.

## ERREDAKZIOA

*Oporrak bakean* lelopean, 450 haur inguru etorri dira Saharatik Euskal Autonomia Erkidegora, uda hemen igarotzeko. Horietatik 19 eskualdera etorri dira. Nabarmenezkoa da kopuru hau, inoiz baino handiagoa baita. Hiru hegazkinetan ailegatuko dira 7 eta 12 urte bitarteko gaztetxoak eta atzo goizean iritsi ziren lehendabizikoak. Gainontzekoak berriz, bihar ailegatuko dira.

Bi hilabete inguru egingo dituzte haurrek gure artean, eta irailaren 12an itzuliko dira berriro beraien etxetara. Tolosaldeko hainbat udaletxek finantzatzeko dute ekimena eta Frente Polisarioko ordezkariak kudeatzen du, hauek gizarke zerbitzuekin batera. Tolosaldea Sahararekin elkarrekin



Bihar iritsiko dira gainontzeko haur sahararrak Tolosaldeara. E. MAIZ

ere parte hartzen du, ahal duen neurrian lagunduz.

Lehendabiziko egunetan, mediku azterketak, analisiak eta abar egingo dizkiete. Baina honez gain gozatzeko aukera ere izango dute, hainbat jarduerara prestatu baitituzte datozen egunetarako. Harreran hartu dituzten familiekin egoteaz gain, elkarrekin hainbat ekintza egiteko aukera ere izango dute. Besteak beste, Abaltzisketako La-

rraitz auzoko abentura parkera joango dira, eskualdeko herrietako jaietara, suhiltzaileen egoitzara eta Txiki Parkera.

Sahararrak 1975. urtetik bizi dira errefuxiatu bezala Aljeriako basamortu gogor eta zakarrean dauden kanpaleuetan. Hori dela eta, ekimen honen helburua da, «haur hauek udako bi hilabeteetan behintzat handik ateratzea eta uda desberdin eta polit bat igarotzea».



Areso sokatira taldekoak bigarren dira sailkapenean. HITZA

## 600 kilokoena finala bihar jokatu da

**Areso** » Lur gaineko Euskadiko Sokatira Txapelketako txapelak jokoa izango da arratsaldean, Erandion.

## » SAILKAPENA

### 600 kilokoena txapelketa

1. Goiherri (Erandio, Bizkaia). 14 puntu.
2. Areso (Areso, Nafarroa). 10,5 puntu.
3. Gaztedi mistoa (Laukiz, Bizkaia). 10 puntu.
4. Mutriku (Mutriku, Bizkaia). 9,5 puntu.
5. Goiherri B (Erandio, Bizkaia). 6 puntu.
6. Getxo (Getxo, Bizkaia). 4 puntu.
7. Gaztedi A (Laukiz, Bizkaia). 2 puntu.

## ERREDAKZIOA

Lur gaineko Euskadiko Sokatira txapelketako bederatzigarren saioa jokatu da asteburu honetan. Jardunaldia Erandioko (Bizkaia) Goiherri-San Cristobal auzoan izango da. Hau, 600 kiloko txapelketako hirugarren eta azken saioa izango da. Beraz, hor erabakiko da zeinek irabazten duen lehia.

Zazpi talde ikusteko aukera izango da biharkoan. Areso, Gaztedi A eta Gaztedi mistoa (Laukiz, Bizkaia), Getxo (Getxo, Bizkaia), Goiherri (Erandio, Bizkaia), Goiherri B (Erandio, Bizkaia) eta Mutriku (Mutriku, Bizkaia). 17:30ean hasiko da norgehiagoka.

Goiherri A taldeak irabazi ditu aurreko bi jardunaldietako txanda eta tiraldi guztiak. Ondorioz, nahi-

koa lukete Goiherrikoek bihar laugarren sailkatzea txapelari eusteko.

Bestalde, joan den larunbatekoari begiratuta, Areso eta Mutriku aritu ziren indartsuen, eta biharkoan zer gertatzen den ikusi beharko da. Gaztedi talde mistoan zelairatzen diren kideek asko izango dute ikusteko.

Behin, 600 kilokoena amaituta, hilaren 17an, 580koena hasiko da. Hemen ez da lehiatuko Areso.

## «Iruñeara joan beharrik ez dagoelako»

**GAZTELU** » Azken urteetan bezala, Gazteluko neska-mutiek ludotekako ekintzen artean, San Fermi-nak ospatu dituzte. Herenegun, denak txuri-gorritz jantzita zeudela, ez zuten plazan. Eguerdian, Udaletxearen eskutik, bazkari bat egin zuten. Ondoren jokoak egin zituzten. HITZA



## H Hilberriak

### IGNACIO BARRIO URTIZBEREA

(Carmen Legazen alarguna)

Atzo hil zen, 92 urterekin, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

-Goian bego-

Seme-alabak: Arantxa eta Isidro Urizabal, M<sup>o</sup> Carmen eta Vicente Quevedo; bilobak: Iñaki, Gorka eta Itsaso, Maite eta Aitor; birbiloba: Eider; eta gainerako ahaidak.

Haren animaren alde otoi bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitzete! GAUR OSTIRALA, arratsaldeko ZAZPIETAN, TOURSEKO SAN MARTIN parroki elizan gorpua aurrean dela egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Helbidea: Labaaga 33 J, 1A

Oharra: Hilbela Santa Isabel tanatorioan dago.



URRETXU  
2010eko  
uztailaren 9a

### INAZIO BARRIO URTIZBEREA

Atzo hil zen, 92 urterekin.

Tarrapatatan tarrapatatan kale, zoko ta plazatan; tarrapatatan tarrapatatan jaiegun eta festatan; tarrapatatan tarrapatatan txaranga eta bandatan, zure danborren hots gozoena Euskadiko karrikatan, alaitasuna zabalten dute ez bizitzeko penatan.

Urretxuko txistulari taldeak eta Zumarragako Antxinako Ama taldeak, esker onez



URRETXU  
2010eko  
uztailaren 9a

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAN jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 65 95



**FUNERARIA VASCONGADA**  
EHORZKETAK  
SPUTNIK DORREEN ONDOAN  
ZURE BETIKO EHORZTETXEA  
www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40  
ZERBITZU IRAUNKORRA  
902 402 900





